

Nominalizazioak eta Marteko euskara

Xabier Artiagoitia
UPV/EHU & IKER UMR 5478

[argitaratu aurreko bertsioa da hau; erreferentzia osoa: Artiagoitia, X. 2020. "Nominalizazioak eta Marteko euskara". In I. Camino, X. Artiagoitia, I. Epelde, & K. Ulibarri (eds.) *Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena*. Koldo Zuazori gorazarre, UPV/EHU, 67-87.]

Laburpena

Artikuluaren erakusten da *-era*, *-keta*, *-pen* bezalako atzizkien bitartez eratorritako euskarazko nominalizazioek ere Alexiadouk (2001) aipatzen dituen ezaugarri batzuk dauzkatela (e.g. irakurketa ebentiboaren ezakusatibitate eta pasibotasuna, genitibodun argumentuen beharra) baina, ostera, oso gertaera egitura urria dutela (adberbiorik eza, posposizio-sintagmek *-ko* hartu beharra); ondorioz, nominalizazio eratorrien irakurketa ebentiboa oso mugatua da euskaraz. Aitzitik, *-(z)e* buru duten perpaus nominalizatuak perpaus arruntean sumatzen diren aditz proiektzio guztiak dauzkate eta, batez ere, irakurketa ebentiboa permititzen dute. Horrek azalduko luke hiztun batzuek zergatik diren arrotzak edo *Martekoak* zenbait nominalizazio eredu: antzeko egiturak dauzkaten zenbait hizkuntzak (i.e. ingelesak, gaztelaniak) ez bezala, euskarak erraz jo dezakeelako perpaus nominalizatueta.

Hitz gakoak: nominalizazioa, perpaus nominalizatuak, gertaera irakurketa.

1. Sarrera¹

Koldo Zuazori zor zaio, nik dakidala behintzat, ‘Marteko euskara’ deitura *Euskararen sendabelarrak* (2000: 137) liburuan artifiziala eta eguneroko jardunetik urrun dagoen euskarari esateko; Marteko euskara kri-

¹ Koldo Zuazori eskaintzen diot berarengandik ikasia eskertzeko egin dudana ikerlan txiki hau; zorretan geratuko naiz beti edozelan ere. Eskerrak ematen dizkiet Koldori berari eta Mainer Huarteri hemengo datu batzuekin laguntzearen, bai eta Iñigo Arteatz eta Sergio Monforteri ere, aurreko bertsio bati egindako oharrengatik. Lan hau Espainiako Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioak lagundutako PGC2018-100686-B-I00 ikerketa proiektuaren babespean egin dut.

tikatzen duen pasarte horretan *sakabanaketa*, *mobilizapen* eta *ezarpen* nominalizazioak aipatzen dira adibidetzat. Zentzuzko galdera bat da, beraz, ea zergatik diren, edo suertatzen zaizkien hiztun batzuei behintzat, halako nominalizazioak arrotzak. Artikulu honetan helburu horri ekingo diot, apalki bada ere: Alexiadouk (2001, 2017) egiten duen nominalizazioen azterbide sintaktikotik abiatuta, euskarazko nominalizazioen jakintzan sakondu nahi dut eta egiaztatu ea horrek giltza ematen duen nominalizazio batzuen arrotasuna azaltzeko. Kasurik txarrean, azalpen saioak balioko digu euskal nominalizazioak beste hizkuntzetako argitan hobeto ezagutzeko.

Nominalizazioak diodalarik, tradizionalki aditzekin lotutako izenez ari naiz eta ondoko guztiak sartzen dira euritako handi horren azpian:

- (1) testu idatzi bat *ikertzea*
- (2) *euskalduntze* batzordea, osasun sistemaren *euskalduntzea*
- (3) testu idatzi baten *ikerketa*
- (4) Ulisesen *itzulera*

Lehena, *perpaus nominalizatua* dugu, barnetik perpaus itxura erabatekoa duena baina kanpotik izen-sintagmaren banaketa duena; jende askok ikertu du hau (hasi Goenagarekin 1984 eta buka Duguinerekin 2012, lan esanguratsu bi aipatzearen) eta ez dugu guk hemen luze eta zabal aztertuko, baina aintzat hartuko dugu, ezinbestean hartu ere. Ez dezagun ahaztu, edozelan ere, *-t(z)e* atzizkian oinarrituta sortzen direla izen eratorriak ere, (2)-ko *euskalduntze* lekuko. Hauek ere sartzen dira hemen jomugan ditugun nominalizazioen esparruan, (3) eta (4) adibideetako *ikerketa* eta *itzulera* bezala.

Artikulua honela antolatatu dut: bigarren zatian, Alexiadouk (2001 eta geroko lanak)² Morfologia Banatuaren esparruan proposatzen duen azterbidea zirriborratzen dut. Hirugarrenean, euskal nominalizazio eratorrien ezaugarriak berrikusiko ditut, orain arte esan dena (batez ere Azkarate 2008, Gondra 2014 eta Urrestarazu 2017) eta neure oharrak tartekatuz. Laugarren zatian, proposatuko dut (a) euskarazko gertaera nominalizazioetan oso aditz egitura urria dagoela eta kanpo argumentua, halakorik dagoenean, izenari dagokion proiektzio funtzioaletan batzen dela, Bruening-ek (2013) eta Alexiadouk (2017) ingelesezko posesiboaz diotenarekin bat; eta (b) perpaus nominalizatuek determinatzailearen azpian aditzari lotutako proiektzio funtzional guztiak biltzen dituztela. Proposamenaren ondorioa da gertaera interpretazioa nahiko mugatua dela euskarazko nominalizazio eratorrietan eta interpre-


² Bakarka (Alexiadou 2010a-b, Alexiadou 2011, Alexiadou 2017) zein elkarlanean egingakoak (Alexiadou eta beste 2010, Alexiadou eta beste 2011, Alexiadou eta beste 2013) sartzen dira hor, besteak beste.

tazio hori, berriz, beti dagoela eskura (hiztun guztiek bestela ere erabiltzen dituzten) perpaus nominalizatueta.

2. Nominalizazioak eta Alexiadouren lanak

Gauzak sinplifikaturik, nominalizazio eratorriak ulertzeko modu orokor bi daude: lexikalista eta konstrukzionista. Ikuspegi lexikalistan, hiztegi barruan osatzen dira hitzak, aditzetik eratorritako nominalizazioak ere, are aditzek bezala gertaera egitura eta nahitazko argumentuak dauzkatena, Grimshaw-en (1990) analisi ezagunean bezala. Azterbide konstrukzionistetan, aitzitik, hitzak ez dira hiztegian osatzen, sintaxian zehar baino. Morfologia Banatua (hala deitua Halle eta Marantz 1993 lanaz gero) azterbide konstrukzionista horietariko bat da eta guk abiapuntu hartu dugun Alexiadou (2001) lanak bete-betean jarraitzen dio azterbide horri. Labur-zurrean:

a. Lexemak erro neutroak dira kategorialki, eta amaierako kategoria sintaktikoa zehazten da erroa osagarritzat hartzen duten kategoria funtzionalen arabera. Esaterako, $\sqrt{\text{destruct}}$ - erroa aditz gisa lexikalizatuko da aditz kategoria funtzionalaren osagarri gisa proiektatzen bada, baina izen gisa izen kategoria funtzionalaren osagarri gisa proiektatzen bada:³




b. Gramatika sortzailean ohikoa da gertaera eta emaitza nominalizazioen artean bereiztea Grimshaw-en (1990) lanaz geroztik; lehena ekintzari berari dagokio eta nahitazko argumentuak dauzka (cf. 6a), eta bigarrena, berriz, ekintzaren emaitza edo ondorioei dagokie eta ez du argumenturik hartzen (cf. 6b):

- (6) a. The examination *(of the patients) took a long time
 b. The exam was six pages long

³ Artikuluan honako laburdurak erabili dira: a = aditz txikia, D = determinatzaile, Dnb = denbora, Asp = aspektu, Num = numero, i = izen txikia, I = izena, P = preposizio/postposizio, S = sintagma.


Alexiadouk (2001) gertaera nominalizazioetan aditzekin egon ohi diren kategoria funtzionalak proposatzen ditu:

(7) Gertaera nominalizazioak



Emaitza nominalizazioetan, berriz, izenaren inguruko kategoria funtzionalak zuzenean lotzen zaizkio erroari:

(8) Emaitza nominalizazioak



Gertaera nominalizazioen eta emaitza nominalizazioen arteko bereizketa erroei loturiko kategoria funtzionalen presentzia/ausentziari zor zaio. Horrez gain, gertaera nominalizazioek bestelako ezaugarri hauek ere omen daukate, jarraian laburbilduko ditudanak.

Alexiadourentzat (2001), gertaera nominalizazioak egitura ezakusatiboak dira, pasiboen modukoak: gertaera bat adierazten dute, agente bat inplikazten dute eta, alde horretatik, *aditz* txikia edo *boz* buru funtzionala (*little v* and *voice* ingelesez, hurrenez hurren) biltzen dute; baina aldi berean aditz txiki edo boz buru funtzional hori akastuna da: ez dauka gaitasunik kasu objektiborik ezartzeko eta kanpo argumentua zuzenean proiektatzeko (hots, iragan-kortasunaren alderdia falta du buruak); garai batean Harleyk (1995) aldarrikatutako *become/happen* motako aditz txikia da alegia. Hortaz:

⁴ Ikuspegi diferenteak daude barne argumentua proiektatzeaz; Marantz-ek (1997), esaterako, barne argumentua aditz bihurtutako erro baten espezifikatzaile gunean sortzen du (Gondrak 2014 ere hala egiten du); Alexiadouk (2001), berriz, erroaren egiazko osagarritzat hartzen du. Artikulu honen helburu apalak kontuan hartuta, ez naiz eztabaida honetan sartuko.

- (9) a. * The destruction the city took a long time
 b. The destruction of the city (by the enemy) took a long time
 [c. The arrival of the train took place at ten
 d. * The jumping of the athlete (* = interpretazio ebentiboan)]

Alexiadou (2017) lanean ere, aditz txikia eta boza parekotzat jotzen direla dirudi, baina aurreko lan batean (Alexiadou eta beste 2015) lehena erroa aditz bihurtzen duen kategoria soiltzat eta bestea kanpo argumentua ezartzen duen kategoriatzat hartzen dira; nik, gero (cf. §4.1) ikusiko dugun bezala, bigarren ikuspegia lehenetsiko dut.

Alexiadouk halako paralelismo bat ikusten du nominalizazioen ikuspegi honen eta ergatibitatearen ikuspegi jakin batzuen artean. Hots, ergatibitatearen ikuspegi batzuek (e.g. Nash 1995) *aditz* buru akastun bati leporatzen diote kasu ergatiboaren azalpena, ergatiboa bera nolabaiteko (*by* buru duen) preposizio-sintagma bat balitz bezala. *By*-sintagma da modu bat erroak inplikatzeko duen kanpo argumentua azaleratzeko, baldin eta preposizio horrek esleitzen dituen interpretazioak bat badatoz erroaren kanpo argumentuak dituenekin (cf. Alexiadou eta beste 2009, Alexiadou eta beste 2013). Bestalde, gertaera nominalizazioak ez omen dira posible aditz ezergatiboekin (Grimshaw 1990, Picallo 1991); berauek *aditz* txiki arrunta daukate eta horrexegatik leudeke nominalizazio ebentiboetatik kanpo (= 9d).

Alexiadou (2001) lanarekin amaitzeko, aipa dezagun bere proposamenaren parterik erakargarriena: gertaera nominalizazioek onartzen dute bariazioa bai hizkuntza beraren barruan bai hizkuntzatik hizkuntzara, atzizki nominalizatzaile bakoitzak onartzen dituen proiektzio funtzionalen arabera. Esaterako:

- (10) John's criticizing/having criticized the book (D-**NumS*-*AspS*-*bozS/aS*)
 (11) John's destruction of the book (D-*NumS*-**AspS*-*bozS/aS*)

Ingeleseko DS-gerundioaren eta ekintza nominalizazioen arteko bereizketa ondo azal omen daiteke proposatuaz (a) lehenak *aditz txikia* eta *Aspektua* bezalako aditz proiektzio funtzionalak biltzen dituela baina (adjektiborik eta pluraleko aukerarik ezean) *Numero* kategoria falta duela; eta (b) bigarrenak, berriz, batetik *aditz txikia* eta bestetik *Numero* kategoriak biltzen dituela, *Aspektu-Sintagmarik* gabe. Diferentzia erantsi bat da lehenaren *aditz txikia* kategoria iragankortzat jotzen duela eta bigarrenarena, aldiz, ez (cf. Alexiadou 2001: 137). Arestiko (11) bezalako grekerazko ordainetan zilegi dira era askotako adberbioak (moduzkoak, aspektualak) eta horrek nominalizazioen barruan *AspS* badela salatzen du:

- (12) a. i catastropi ton sthion olosheros mas kateplikse
 ART suntsipen ART ebidentza.GEN guztiz gu harritu.gintuen
 'Ebidentzia guztiz suntsitzeak gu harritu gintuen'
 b. grekerazko nominalizazio ebentiboen egitura: D-*NumS*-*AspS*-*bozS/aS* (cf. 11)

Alexiadouren (2001) azterbidearen ezaugarri nagusiak azaletik birpasatu ondoren, gatozen euskarazko nominalizazioetara.

3. Euskal nominalizazioak

Atal honetan berrikusiko dut gaingiroki zer dakigun euskal nominalizazio eratorriez, dela aurretik esan dena nolabait laburbilduta, dela euskarazko datuak Alexiadouk seinalatutako ezaugarriekin erkatuta.

3.1. Euskal nominalizazio eratorriez orain arte

Emaitza eta gertaera interpretazioak bereizteko irizpideen gaia Grimshaw (1990) lanean garatzen da nahiko zorrotz; eta ñabardura batzuk egin bazaizkio ere (cf. Borer 2003, Alexiadou eta Grimshaw 2008, Sleeman eta Britto 2010) normalean onartu egiten da bereizketa. Euskararako ere, deblauki onartuko dut, eztabaida handirik gabe, gertaera interpretazioaren (13) eta emaitza interpretazioaren (14) arteko bereizketa badela. Interpretazio ebentiboa nabarmena da *luze jo*, *gertatu*, *iraun* bezalako predikatuekin eta oso nekeza da izen pluralekin:⁵

- (13) *erosketa* = erostearen ekintza, prozesua
Pisuaren erosketa asko luzatu da
- (14) *erosketa* = erostearen ondorio, emaitza
Mahai gainean utzi ditut supermerkatuko erosketak

Honetaz, aurretik hitz egin dut (cf. Artiagoitia 2000: 137-141, Artiagoitia 2006, Artiagoitia 2011) eta bereizketa ontzat eman dute beste lagun batzuek ere (Azkarate 2008, Gondra 2014, Urrestarazu 2017). Komeni da, badaezpadan, argitzea anbiguitate hori atzizki batzuetara baino ez dela zabaltzen; esaterako, *-tura* atzizkiak nekez eduki dezake gertaera interpretazioa:

- (15) a. *Zubi berriaren egitura urte berriarekin hasi zen eta luze joko du.
[b. Zubi berria egitea urte berriarekin hasi zen eta luze joko du.]
- (16) a. *Sardinaren erredura iluntzeko 8etarako programatu dute.
[b. Sardinaren erreketa iluntzeko 8etarako programatu dute.]

Bestalde, oso litekeena da *-keta* edo *-pen* atzizkidun nominalizazio guzti-guztiek irakurketa biak ez edukitzea. Honetan harira dator bibliografian sumatzen den desadostasun bat: Azkaratek (2008: 102) dioenaren arabera, *-era*, *-keta*, *-pen/-men* lirarteke atzizki nominalizatzailek ohikoenak gaurko

⁵ Grimshaw-ek zioen gertaera-nominalizazioak ezin direla pluralizatu baina Alexiadouk (2010b) gogora dakarren moduan, murrizketa horek ekintza atelikoak/amaieragabeak afektatzen ditu batez ere; cf. **datuen bilaketak eten dira*. Ikus, halaber, Alexiadou (2011).

euskaran. Hau esatean, berauek gertaera interpretazioa izan dezaketela du gogoan Azkaratek eta zuzen dabilela dirudi:

- (17) Uste dut haren itzulera ospakizun bat izango dela andrearentzat (*Gailur ekaiztsuak*, E. Bronte / I. Aldasoro, 2017, Erein-Igela, 144 or.)
- (18) Testu berriaren itzulpenak luze jo zuen
- (19) Diruaren itzulketa datorren astean gauzatuko da

Adibide sorta hau hiru atzizkiak onartzen dituen *itzuli* aditzaren inguruan antolatu dut, baina begi bistan dago *itzulera* adiera ezakusatiboarekin lotzen den bitartean, *itzulpen* eta *itzulketa* izenek *itzuli* irangakorrarekin dutela lotura, lehenak ‘traduzitu’ adierarekin eta bigarrenak ‘bueltatu’ adierarekin. Azkaratek hiruko zerrenda horretara *-kuntza*, *-zio* eta *-t(z)e* batu litezkeela ere iradokitzen du. Nolanahi ere, deigarria da Gondra (2014) lanean nominalizazio ebentiboak eta emaitza nominalizazioak erkatzen direnean, sistematikoki *-keta* atzizkidunak eta *-pen* atzizkidunak erabiltzen direla hurrenez hurren, *-pen* atzizkiak gertaera interpretaziorik onartuko ez balu bezala:

- (20) *euskalkien sailkapenak hiru egun iraun zuen (Gondraren 9b)

Adibide hau, Urrestarazuk (2017: 59) egoki argudiatu duenez, bitxia da —geure munduaren ezagutzari esker— bai baitakigu Bonapartek edo Zuazok ezin zezaketela beren lana hiru egunean egin; denbora tartea luzeagoa bada, ez dago arazorik irakurketa ebentiboa lortzeko, noski:

- (21) euskalkien sailkapenak hainbat urte iraun zuen⁶

Hau argituta, berrikus ditzagun orain euskal nominalizazio eratorrien ezaugarriak; irakurleak aintzat hartu behar du aurrerantzean esango direnak, besterik adierazi ezean, nominalizazioen irakurketa ebentiboei dagozkiela.

3.2. Gertaera nominalizazioen ezaugarriak euskaraz berrikusten

Gertaera nominalizazioen ezaugarri bat da berauek argumentuen beharra daukatela, nahitaez eduki ere, kanpo argumentua aipatzen ez den arren. Honetan euskara bat letorke Alexiadouren deskribapenarekin. Argumentuen uszteko beharra erakusteko, bi adibide ekarriko ditut:

- (22) Badakit lantokian munstro bat den pertsona adeitsua izan daitekeela kalean, maitagarria etxean. Horregatik zure senarrak izan zezakeen beste alde ezkuturen baten *bilaketari* ekin nion. (*Jende desegokia*, G. Zabarte, 2015, Susa, 80 or.)

⁶ Edo:

(i) Hungariatik iritsitako judu talde baten sailkapena erakusten dute argazki horiek (*Post-kronikak*, A. Barandiaran, 2009, Elkar, 39 or.).

Argazkiak sailkatze-prozesu bat erakusten du, ez sailkatu ondorengo egoera edo emaitza.

- (23) Neutroaren goresteak sexu-harremanen *ukapena* dakar, eta horretan ez nator bat zurekin. (*Ezer gabe hobe*, I. Borda, 2009, Susa, 131 or.)

Adibideotan, zer bilatzen edo ukatzen den ezabatuz gero, irakurlea zer-baiten esperoan bezala gelditzen dela uste dut:

- (22') ?? Badakit lantokian munstro bat den pertsona adeitsua izan daitekeela kalean, maitagarria etxean. Horregatik *bilaketari* ekin nion.
- (23') ?? Neutroaren goresteak *ukapena* dakar...

Hots, prozesu interpretazioa gailentzen delarik, ematen du ezinbestekoa dela beren-beregi esatea *zeren* bilaketaz edo ukapenez ari garen.⁷

Ohartzekoa da *bilaketa* eta *ukapen* nominalizazioak predikatu iragankorretatik eratortzen direla eta, subjektua aipatzen ez den arren, nolabait implizitua dela (gero eztabaidatuko dugu esplizitua izan daitekeen): norbaitek bilatzen edo ukatzen du dena delakoa. Badirudi *-keta* (Azkarate 2008) atzizkiak joera duela nominalizazioak predikatu iragankorretatik eratortzeko eta guztietan antzeko fenomenoak egiaztatzen dugu: predikatua iragangaiztu bezala egiten da, baina ulertzen da subjektu bat badela. Antzera gertatzen da *-kuntza* atzizkiarekin. Kontu hau ondo ikusten dugu NOR eta NOR-NORK aldizkatzea onartzen duten aditzekin:

- (24) a. txerria (berez) hil da
 b. baserritarrek txerria hil dute
 c. txerriaren hilketa deitoratu dute
 c = irakurketa1: inork txerria hiltzea deitoratu dute
 c ≠ irakurketa2: txerria (berez) hiltzea deitoratu dute

Hots, *hilketa* izena norbaitek norbait hiltzarekin lotzen da, ez 'berez hil' predikatu inkoatiboarekin. Salbuespen batzuk egon litezke agian,⁸ baina egonkorra da eredu hau NOR vs NOR-NORK txandakatzea duten predikatuekin:

- | | | |
|--------------------------------|---|-------------------------|
| (25) teilatuauren zuriketa | ≠ | teilatua berez zuritzea |
| (26) literatur lanen sorkuntza | ≠ | literatur lanen sorrera |
| (27) diruaren itzulketa | ≠ | diruaren itzulera |

⁷ Dena esateko, badira ikerketa batzuk (cf. Sleeman & Britto 2010, Grimm & McNally 2014, Smirnova & Jackendoff 2017; bigarrena batez ere) argumentuen beharra nasaitu egin daitekeela diotenak, horretarako baldintza pragmatikoak gertatuz gero. Euskaraz ere halaxe:

(i) Interfonoaren txirrinak eten zidan *irakurketa* (*Jenisjoplin*, U. Alberdi, 2017, Susa, 139 or.)

Pasarte honetan ez da aurretik irakurgairik aipatu eta, nahiko kriptikoa bada ere, *dena delakoa-
ren*, *zernahiren* irakurtze-ekintza eteten dela ematen da aditzera pragmatikoki.

⁸ Hala dio Urrestarazuk (2017) *osaketa*, *isurketa*, *erreketa* izenatarako behintzat.

Antzeko zerbait sumatzen dugu *-pen* atzizkiarekin:

- (28) a. arazo baten azalpena
b. txertoaren garapena

Arazo baten azalpenak ez du ‘arazoa bat sortu denik’ esan nahi, ‘norbaitek arazo bat azaltzea’ baino; bigarren adibidean ere, ulertzen dugu eskuarki ‘norbaitek’ garatzen duela txertoa, ez berez garatzen dela.⁹

Azkenik, Azkaratek (2008) iradokitakoaren bidetik, esan behar dugu *-era* atzizkiari esker lortzen direla predikatu ezakusatibo askoren gertaera nominalizazioak: arestiko *itzulera*, *sorrera* edo *jaitziera*, *etorrera*, *agerrera* bezalakoak dira lekuko. Hauetan ere, printzipioz, gertaera irakurketa behartuz gero, argumentua ezinbestekoa dugu:

- (29) Bihartxe abiatuko naiz hara, gure etorreraren berri ematera (*Gure Jerusalem galdua*, A. Epaltza, 2013, Elkar, 271 or.)

Hor *etorrera* besterik esaten ez badugu, adibidea arraro xamarra izango da, aurreko (22’) eta (23’) adibideen parekoa.

Laburbilduz, euskaraz predikatu irangakorrek eta ezakusatiboek parte har dezakete nominalizazio ebentiboetan; berauek barne argumentua ezinbestekoa dute eta, predikatu iragankorren kasuan erroaren (hots, predikatua- ren) jatorrizko kanpo argumentua ezabatuta agertzen bada ere, inplizitua da. Zentzu honetan esaten dute autoreek (Grimshaw 1990, Picallo 1991, Alexiadou 2001) gertaera nominalizazioak *pasiboak* direla.

Moduzko modifikatzailei, modifikatzaile aspektualei, eta adberbioei dago- kienez, ohar batzuk egin behar dira. Bateko, *-pen*, *-keta* eta halako prozesu nomi- nalizazioetan zaila dirudi adberbioez edo modifikatzaile aspektualez hitz egiteak:

- (30) a. txostenaren (*azkar[ki]) idazketak ordubete iraun zuen
b. (*astiro) testamendu berriaren (*astiro) itzulpenak luze jo zuen
c. Egunkariaren (*egunero) irakurketa maite dut
d. Gernikaren (*bonben bidez) suntsipena gertaera latza izan zen.

Hala ere, Gondrak (2014) dioenaren kontra eta Urrestarazuk (2017) az- pimarratu duen moduan, ez da egia halako modifikatzaileak ez direla oro har zilegi euskaraz; badira zilegi, baina *-ko* hartzen dute (halakoak zilegi diren ber). Eta *-ko* hartzeak salatzen du ez direla aditz proiektioetan batzen, izena- ren ingurukoetan baino (de Rijk, 1998, Höhn 2012):

- (31) a. Ulises nobelaren *apurkako/ ?astiroko* itzulpena
b. egunkariaren *eguneroko / *azkarreko* irakurketa
c. Gernikaren *bonba bidezko* suntsipena

⁹ Hemen ere salbuespen argia dago: (*des-*)*agerpen* hitzak ‘zerbait berez agertzearekin’ du lotura, ez nahitaez ‘norbaitek zerbait agertzearekin’. Gainerakoan, *Euskal Hiztegia* delakoan diren *-pen* atzizkidun hitz ia guztiak argumentu biko aditzekin lotzen dira.

Nire ustez, datu honek pentsarazten du euskarazko nominalizazio hauek ez daukatela aditz proiektzio askorik, aditz txikia bera baino harantzago; hots, aspektu-sintagma falta dute (Gondrak kasu honetan zuzen dioen moduan). Horrek bat egiten du Alexiadouk (2001: 131) aipatzen duen beste ezaugarri batekin: adberbio aspektualak zilegi ez badira, adjektibo aspektualak (*etengabe*, *sarri* bezalakoak) numero-sintagmari lotuta agertuko dira (cf. 32a). Adjektibo aspektuala izan barik balio aspektuala duen eta *-ko* postposizioa duen *ohiko* modifikatzailea ere posible da (cf. 32b):

- (32) a. Erreportajearen irakurketa *azkarra* egin eta gero, editorialera jo dut (*Etxeko hautsa*, A.I Lertxundi, 2011, Alberdania, 232 or.)
 b. Gaixoaren *ohiko* azterketa medikuak ordubete inguru irauten du

Beste horrenbeste esan daiteke, oro har, postposizio-sintagma itxurako modifikatzaile guztiez, direla adjuntuak direla predikatuak beren-beregi hautatakoak; denek *-ko* hartzen dute, ohiko IS batean bezala, edo bestela izenburu batean bezala determinatzaile-sintagmaren ondorengo kokapena onartzen dute:

- (33) a. Ulisesen Itakarako itzulera (edo bestela: Ulisesen itzulera Itakara)
 b. Mirenen astebeteko atxiloketa (edo bestela: Mirenen atxiloketa astebetetz)

Grimshaw-ek hitzetik hortzera darabiltzan *constant* eta *frequent* tanke-rako adjektibo aspektualak ere ez dakit oso natural ateratzen diren, baina adibide banakaren bat topatu dut:

- (34) a. Bizitzea, hein handi batean, errealitatearen *ikerketa etengabea* da, *ikerketa* eta imajinazio jardun etengabea. (*Egunkaria*, 2001/03/18)
 b. Bertako agintariak Aleksander Lukaxenko buru dutela mila bider salatu dituzte mendebaldeko erakundeek, giza eskubideen *zapalketa etengabea* babestu dutelako. (*Berria*, 2003/09/09)
 c. Esate baterako, ez zen sekula iritsi hispaniar letrei gustua hartzera, Quevedoren *irakurketa sarria* gorabehera (*Ipuin hautatuak*, J. L Borges / J. Garzia, 1998, Ibaizabal, 245 or.)

Naturaltasuna nire iritziz hutsa da, noski, hor naturalago sumatzen ditudalako «giza eskubideak etengabe zapaltzea babestu dute» edo «Quevedo sari irakuri arren».

Aurretik (cf. §2) adierazi moduan, ikuspegi zabaldua da gertaera nominalizazioak egitura pasibo antzekoak direla eta, hortaz, pasiboetan bezala predikatu iragankorren kasuan, posible dela inplizitua den kanpo argumentua preposizio-sintagma baten bidez azaltzea eta, Alexiadouri kasu eginez gero, modu markatuagoan posesibo berezi baten bidez (esaterako, ingelesez):

- (35) a. the destruction of the city by Rome
 b. Rome's destruction of the city
- (36) a. la captura de los fugitivos por los soldados
 b. * la captura de los fugitivos de los soldados
 [c. la demostración de Juan del teorema de Pitágoras (es inconsistente)
 Alexiadou 2001: 82-hh; jatorrizko datuak Zubizarreta 1987, Picallo 1991]

Esan dezadan lañoki euskaraz ez dagoela pasibo argirik egile argumentuaren gauzatze alternatiboa egiaztatzeko; pasiborik badugula onartuta ere, egilea ergatiboarekin edo (garai bateko euskaran) instrumentalarekin markatzen dugu, hemen ezinezkoa dena (cf. ** *euskalkien Zuazok/Zuazoz sailkapena*). Eta gaztelaniaz (eta erromantzez oro har) bi genitibo posible (baina arrotz) badira ere, emaitza nominalizazioetara mugatzen ei da (cf. 36c; Picallo 1991, Alexiadou 2001, 2017). Euskaraz, eta hemen dator korapiloa, prozesu nominalizazioetan posesiborik izatekotan, jabetza genitiboaren formatoan dator berriro ere, hasierako adibideetarikoa bat hona ekarri eta moldaturik egiazta daitekeenez:

- (37) *Bonaparteren* euskalkien sailkapena prozesu luzea izan zen

Alegia, sailkagaia eta sailkatzailea, biak, kasu marka berarekin ageri dira, ingelesez ez bezala. Marteko euskara izan daiteke bi jabetza genitibo errendakadan ematea, baina dela prozesua dela emaitza interpretazioa, nik eta nire informatzaileek ez dugu alde handirik sumatzen arestiko (37) adibidearen eta ondoko bi hauen artean:

- (38) a. *Artetaren* Ganboaren erretratua (Euskaltzaindia 1987: 39)
 b. *Leizarragaren* Testamentu Berriaren itzulpena¹⁰ [1571ean argitaratu zen]

Gehienez ere, artifizialtasun erantsia (37) adibidean perpaus nominalizatua erabili ez izanari leporatu ahal zaio, noski (cf. *Bonapartek euskalkiak sailkatzea prozesu luzea izan zen*). Beraz: euskaraz prozesu nominalizazioetan *posesiboa* agertzeak esan nahi du subjektu argumentua ager daitekeela bai, baina osagarriak daukan kasu marka berarekin. Geroago, 4. atalean bueltatuko gara kontu honekin, uste baino inportanteagoa baita ikuspegi konparatibotik begiratuta behintzat.

Gauzak horrela, gertaera nominalizazio eratorrietan sumatzen dugun kasu ezartze sistemak (dagoeneko Artiagoitia 2009, 2012 lanetan eztabaida-

¹⁰ Izen-sintagma hau hiru lekutan topatu dut Google-ri esker:

a. https://eu.wikipedia.org/wiki/Euskara_arkaikoa

b. <http://www.fontes50.es/eu/4-euskara-bereziki-aberatsa-eta-interesgarria>

c. <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/harriet-bernard-maurice/ar-52287-141940/>

tuak) bitxia dirudi: perpaus mailan susmatzen dugun ergatibitatearen ordez, argumentu guztiak berdin markatzen ditugu nominalizazioetan:

- (39) a. Zuazok euskalkiak birsailkatu zituen (ERG-ABS)
 b. Maria etorri da (ABS)
- (40) a. *Zuazoren euskalkien sailkapena* (GEN-GEN)
 b. *Mariaren etorrera* (GEN)

Lehen aditzera eman dut predikatu ezergatiboek ez dutela gertaera nominalizazioetan parte hartzen; kontu hau artikulu xume honen helburuetatik harantzago doa,¹¹ baina emaitza ez litzateke aldatuko.

Datiboarentzako lekurik eza da beste ezaugarri bat. Nabaria da (cf. Elordieta 2001) euskaraz aditz ditransitiboetako datibo argumentuak ezin ager daitezkeela nominalizazio eratorrietan, are gutxiago irakurketa ebentiboetan:

- (41) a. umeei goxokiak erosi dizkiegu
 b. *umeei goxokien erosketak luze jo du
 c. *umeen goxokien erosketak luze jo du
 d. *goxokien umeen erosketak luze jo du
 e. *goxokien erosketak umeei luze jo du
 [c-e adibideak (Elordieta 2001: 72) lanetik moldatuak]¹²

Era berean, Urrestarazuk (2017) argi utzi du tipikoki ditransitiboak (i.e. NOR-NORI-NORK) diren predikatuetan *-keta* atzizkiak emaitza eskasak dauzkala: **erantzuketa*, **eskaketa*, **eskainketa*. Galdera da hau zergatik litzatekeen honela. Arazoa morfologiko hutsa izan liteke (datiboak ez duela *-ko* atzizkia onartzen), baina sintaktiko hutsa izateko aukera handia dauka, Urrestarazuk (2017) iradokitzen duen bezala: nominalizazioetan datiboa batzeko edo proiektatzeko egitura sintaktiko nahikorik (edo behar bezalakorik) ez izatea. Izan ere, osagarri bikoitzeko predikatuetan kontu orokorra ei da helburu den argumentua nominalizazioetatik kanpo geratzea (esaterako, ingelesez eta grekeraz; cf. Alexiadou 2001).

¹¹ Nahiz eta ez duen argitzen kasu guztietan irakurketa ebentiboa posible den, Urrestarazuk (2017: 35) defendatzen du *-keta* atzizkia ezergatibo edo agentibotzat hartzen diren predikatu iragangaitz batzuei (NORK zein NOR motakoak) lotzen zaiela (e.g. *ariketa*, *hizketa*, *jarduketa*, *jostaketa*, *lehiaketa*); nolana ere, hemen ere argumentuak genitiboz markatuko lirateke (cf. *enpresaren jarduketa*).

¹² Berro & Fernández (2019) lanak proposatzen du izenburuetan izenek (helburu edo iturri) datibo osagarria eduki dezaketela, aditz proiektiorik gabe; ados nago, oro har, proposamenarekin eta xehetasunetan sartzeak luzeegi joko lukeenez, bakarrik esango dut, beraiek diotena gorabehera, izenburuetako izen horiek (cf. *abisu*, *dei*, *gorazarre*) ez direla egiazki *gertaera* izenak, ez behintzat gertaera konplexuko izenak Grimshaw-en zentzuan. Eta aparte, noski, izenburuetara mugatzen dira; nik hemen gogoan ditudan izen-sintagmek, gramatikalak izatekotan, sintaxi arrunta edukiko lukete.

Aspektu aldetiko bereizgarriari dagokienez, ezaguna da beste hizkuntza batzuetan aspektu lexikoaren aldetik murrizketak izaten direla atzizkien artean; ingelesez, esaterako *-ing* nominala ez da bateragarria predikatu telikoe-kin (**the arrivings of the train vs the arrivals of the train* ‘trenaren iritsierak’). Kontu hau, nik dakidala, aztertugabea da gure artean.¹³

Atzizkien arteko bereizketak direla eta, oro har, falta ditugu nominalizazio atzizkien monografiak. Bada salbuespen bakanen bat (Urrestarazu 2017); aztertuena, jakina, *-t(z)e* atzizkia dugu perpaus nominalizatuen aldetik (cf. Goenaga 1984 lanaz gero). Azkaratek (2008), bestalde, hainbat atzizki nominalizatzaile aipatzen ditu baina ikusteko dago horietan guztietan interpretazioen anbiguitatea gertatzen den. Zerrenda horretan falta da, esaterako, *-tza* bezalako atzizki bat, ustez (zenbait predikatutatik behintzat) gertaera nominalizazioak ere sor ditzakeena:

- (42) a. Haur baten jaiotzak dakarren kaosa konpentsatze aldera...
(E. Rodriguez, *Bihotz Handiegia*, 2017, Susa, 15 or.)
b. egintza, ekintza, iraultza, jaiotza

Euskarazko nominalizazio ebentiboen ezaugarriak berrikusi ondoren, natorren analisi posible bat proposatzera.

4. Analisi baterantz


4.1. Nominalizazio eratorriez

Aurreko atalean egiaztatu dugun bezala, euskarazko gertaera nominalizazioek Alexiadouk (2001) eta bestek adierazitako ezaugarriak betetzen dituzte, alegia:

- itxura ezakusatiboa erakusten dute predikatu iragankorretatik eratorritakoen artean;
- aditz proiektzioak nahiko mugatuta edo ahulduta ageri zaizkigu: ebentibitatea adierazi egiten da, baina *-ko* buru duten sintagmen eta adjektiboen bitartez (aspektualak izan daitezkeenak), inoiz ez adberbioen edo aditz proiektzioek ohi dituzten posposizio-sintagmen bitartez;
- argumentuen nahitaezotasuna ere sumatzen da; subjektua aukeran daukate, baina beronek ohiz kanpoko eta bitxia dirudi;
- argumentuak genitiboarekin markatzen dira.

¹³ Eta, gaian sartuta, ez dakit alde handirik dagoen *trenen iritsierak* eta *trenen iristeak* adibideen artean.

Hortaz, honelako egitura batean pentsatu behar da:



Izen txikia buru funtzionalaren gaineko egitura ez dugu islatu; printzipioz, bertan *Sailkatzaile/Classifier*, *Numero* eta euskarazko genitiboaren berri emateko proposatu dudan *Posesibo* buruak (cf. De Wit 1997, Artiagoitia 2009, 2012) ere agertu beharko lirateke. *Boz/voice* hori akastuna da zentzu jakin batean:¹⁴ ez du kanpo argumentua proiektatzen Bruening-ek (2013) dioen moduan; eta jatorrizko erroari dagokion kanpo argumentua, hartara, izenaren inguruko proiektzio funtzionalean proiektatzen da (Bruening 2013, Alexiadou 2017). Ageriko kanpo argumenturik ezean, subjektua isila dela pentsatu behar dugu, Sichel-ek (2009) eta Bruening-ek (2013) iradokitzen duten bidetik.

Ingelesaren antzera euskaraz, kanpo argumentua *posesibo* gisa ager daiteke subjektuarentzako argumentu gune bat dagoelako DS mailan; diferentzia da euskaraz genitibo posizio biak (osagarriaren eta subjektuarena) goian daudela, ingelesez bata iS-ren azpian eta bestea goian, iS proiektzioaren gainean, dauden bitartean; datu hau ondo egiaztatzen da zenbatzaileraren bat zi-legi denean prozesu nominalizazio batean (Artiagoitia 2012):


- (44) a. Botoen_i bi [botoen_i zenbaketa] horiek denbora asko iraun zuten
 b. (Bonaparteren_i) euskalkien_i hiru (t_i) t_j sailkapenek luze jo zuten

¹⁴ Ikus honetaz Ormazabal & Romero (2017); euren proposamena zuzena bada, nominalizazioetako aditz txiki/boz akastun batek ez luke datiboa gora mugitu eta azalarazten utzi beharko; gauzak hala direla dirudi.

Beste era batera esanda, ingelesezko nominalizazio *iragankorrek* (cf. *John's destruction of the city* tankerakoak, Alexiadou 2001: 213) neutralizatutako nominalizazioak dira euskaraz. Hain zuzen ere, Alexiadou (2017) lanean behin eta berriro ukatzen da buru funtzional batek bi kasu ezarri edo erkatzeko gaitasuna edukitzea.¹⁵ Alternatiba, noski, beste hizkuntza askotan hau da: kanpo argumentua iS proiektzioaren azpian PS baten bidez, *by* edo antzeko preposizioa buru duen sintagma baten bidez alegia; euskaraz ez daukagu egiletasuna gauzatu dezakeen halako posposiziorik.

Horrez gain, suposatu behar da bozS akastun horri leporatu behar diogula adberbiorik eta, oro har, aditz proiektzioetan ohikoak diren postposizio-sintagma arruntak ez agertzea. Hau da, bozS hori arrunta ez izanik, boz-Sintagmetan ohikoak diren modifikatzaileak falta dira euskaraz; datu hau hobeto zehaztea etorkizuneko erronka da ikertzaileontzat.

Badirudi *-era* gertaera nominalizazioek egitura txikiagoa dutela, atzizkia funtsean predikatu ezakusatiboei lotzen zaielako:



Hemen suposatzen ari naiz, Alexiadou eta besteri (2015) jarraituz, aditz ezakusatibo arruntek boz-Sintagma falta dutela, hori ikuspegi bakarra ez den arren. Nolanahi ere, hainbat kontu aztertzeke eta gerora begira utzi behar dira oraingoz.¹⁶

4.2. *Perpau nominalizatuez hausnarrean*

Euskaraz argi dago perpau nominalizatuek aditzari lotutako kategoria funtzional gehienak edo guztiak biltzen dituztela, are *Denbora* kategoria,

¹⁵ «What is excluded is a head entering multiple Agree with two arguments» (Alexiadou 2017: 369). Ildo beretik jotzen du Fábregasek (2013) ere, fase berean genitibo bakarra dagoela proposatuta.

¹⁶ Euren artean, *-pen* eta *-keta* atzizkien arteko konparazioa. Ikus, halaber, Berro, Oihartzabal, eta Fernández (2018) lana; bertan inkoatibo-kausatibo txandakatzea duten predikatu guztietan bozS badela defendatzen da.

perpausaren kasu markaketa arrunta dugulako kasu ergatiboa barne, eta ezeztapena eta aspektua ere bai (cf. 46c). Ñabardurekin bada ere, ezaugarri horiek deskribatu dira hainbat lanetan (Goenaga 1984, Ortiz de Urbina 1989, Odriozola & Zabala 1997, Etxepare 2006, Duguine 2012, San Martin 2012):

- (46) a. Bonapartek euskalkiak 19. mendean zehazki sailkatzeak (luze jo zuen)
 b. Bonapartek 19. mendean euskalkiak zehazki sailkatu izana inportantea izan zen euskalaritzarako
 c. Bonapartek 19. mendean euskalkiak sailkatu ez izanak arazoak ekarriko zizkion euskalaritzari.
 d. *Bonapartek euskalkiak sailkatze zehatzak (luze jo zuen)
 e. *Bonapartek euskalkiak zehazki 19. mendeko sailkatzeak (luze jo zuen)

Alegia, halakoetan perpausetan ohikoak diren ERG-ABS-DAT kasu markak, adberbioak, eta postposizio-sintagmak topatzen ditugu, ezeztapena eta aspektu burutua duten nominalizazioak ere bai, baina adjektiborik eta «izenlagunik» ez. Honek euskarazko perpaus nominalizatueterako Alexiadouk (2001: 158, 2010a: 504) ingelesezko DS-gerundiorako eta italiera eta gaztelaniazko artikuludun infinitiboetarako ematen duen egitura (cf. 10) iradokitzen du, baina Dnb-S gehituta. Denbora hori ez da jokaturia, noski, eta hori hizkuntzen arteko ikuspegitik egokiro aztertu beharko dugu. Ideia honen osagarri, Alexiadouren ustez perpausaren goi egiturarekin (Dnb-S edo hortxe) lotu ohi diren adberbio modalak eta hitzun adberbioak zilegi dira gure nominalizazioetan:

- (47) a. Poz handia da zuek guztiok, *zorionez*, osasuntsu egotea.
 b. Kalkuluen barruan sartzen da kopako finala *agian* ikuslerik gabe jokatzea.
 c. Ez zait harrigarria egiten musikari batek *seguru asko* kanta bera behin eta berriro jo behar izatea.

Hartara, aldaketak aldaketa, perpaus nominalizatuak egitura hauxe izango lukete, aditz proiektzio guztiak alegia:

- (48) DS-DnbS-(EzeztapenS)-AspS-bozS/aS-erroS

Esan beharra dago, Alexiadourekin (2001: 137) batera, oro har halako nominalizazioek adjektiborik edota pluralik ez onartzea Num-Sintagmarik ezarekin lotu beharko litzatekeela.

Kontu bat gelditzen da azpimarratzeko: euskarazko perpaus nominalizatuak gertaera interpretazioa beti-beti eduki dezaketela, ingelesezko gerundioak ez bezala, eta nire ustez hementxe dago koxka. Irakurleari ariketa hau proposatzen diot: *-keta*, *-pen*, *-era*, *-kuntza* atzizkien bitartez eman ditugun eta irakurketa ebentiboa duten adibide on guztiak hartu eta egiaztatzea ea denetan gertaera nominalizazio bat posible den perpaus nominalizatuak erabiliz; baiezkotan nago.

Beraz, zertan datza euskarazko nominalizazio batzuen izaera martetarra? Bada, irakurketa ebentiboarekin perpaus nominalizatueta jo daitekeela eta, aitzitik, nominalizazio eratorriek oso aditz egitura urria dutela. Honetan aldendu egiten dira euskara eta ingelesa. Hizkuntza bietan dago antzeko nominalizazio eredu bat, hots kanpotik izen-sintagmaren banaketa eta barnetik perpausaren egitura daukana, baina ingelesezko gerundioak ez dauzkan interpretazioak dauzka sarritan euskarazko perpaus nominalizatuak. Alexiadouk (2001: 2), Vendler-en (1967) lan klasikoa gogora ekarrita, azpimarratzen du ingelesezko gerundioak ezin eduki dezakeela gertaeraren interpretazioa:

(49) *John's performing the song took a long time

Euskaraz, argi eta garbi, bestela gertatzen da:

- (50) a. Luze joko luke dena azaltzeak, baina kontua da... (*Jesusen haurtzaroa*, J. Coetzee / A. Gorrotxategi, 2013, Meetook, 250 or.)
 b. Nire semeak liburu oso bat irakurtzea prozesu amaitezina izan daiteke

Era berean, eta konparazio arin bat egiteko, gure perpaus nominalizatuak sarritan subjuntibo baten parekide dira eta ingelesez halakoak infinitiboen bidez ematen dira:

- (51) I {wanted / decided}...
 a. *your reading a book
 b. for you to read a book

(52) Zuk liburu bat irakurtzea {nahi, erabaki} nuen

Gaztelaniarekin erkatuz, antzeko ondorioetara heltzen gara: gaztelaniak ere badu kanpotik izen-sintagmaren banaketa baina barrutik perpausaren egitura duen eredu bat: artikuludun aditz infinitiboak (Plann 1981, de Miguel 1996). Hauek nominalizazio eratorrien kide dira batzuetan (cf. 52a-b adibideak), baina ez beti (52c-d):

- (53) a. El leer el Quijote te llevará mucho tiempo
 b. La lectura del Quijote te llevará mucho tiempo
 c. Vox ha criticado el nombramiento (ayer) de Iglesias como vicepresidente
 d. * Vox ha criticado el nombrar (ayer) a Iglesias vicepresidente

Atzera ere, euskaraz perpaus nominalizatuak aukera bat dira gaztelaniazko nominalizazio eratorrien kasu guztietan:

- (54) a. On Kixote irakurtzeak denbora handia kendu zidan
 [b. On Kixote-ren irakurketak denbora handia kendu zidan]
 c. Voxek kritikatu egin zuen (Sanchezek atzo) Iglesias presidentorde izendatzea

Baina, arazoak nominalizazio eratorrietan hasten dira, hain zuzen ere *gertaera* egitura gehitu nahi dugunean:

- (55) Voxek kritikatu egin zuen...
- a. Iglesiasen izendapena
 - b. (?) Iglesiasen atzoko izendapena
 - c. * Iglesiasen presidenteorde izendapena
 - d. ** Iglesiasen atzoko presidenteorde izendapena

Beraz, euskarazko perpaus nominalizatuak daukaten interpretazio auke-
ren banaketa diferentea da beste hizkuntzetako antzeko egiturekin alderatuta;
ingelesko gerundioek ez bezala gertaera interpretazioa eduki dezakete, eta
aurrekoek onartzen ez dituzten irakurketak ere onartzen dituzte.

5. Ondorioak

Lan honetan euskaraz *-pen*, *-keta*, *-kuntza* eta antzeko atzizkien bidez era-
tzen diren nominalizazio ebentiboak aztertu ditut Alexiadouren (2001) lanari
jarraikiz; nominalizaziook euskaraz oso gertaera egitura urria dutela iradoki
dut eta, aitzitik, aditzekin lotzen den egitura funtzional guztia daukaten per-
paus nominalizatuak interpretazio ebentiboa erraz lortzen dutela ere erakutsi
dut. Kontraste honek azalduko luke zergatik iruditzen zaizkien hiztun askori
'Marteko euskara' nominalizazio eratorri batzuk: gertaerak *kontatzeko*, euska-
rak (beste hizkuntza batzuek baino) naturalago jotzen duelako hizkuntzan oro-
korrak diren perpaus nominalizatuak. Beste era batera esanda: euskarazko
nominalizazio eratorriek egitura ebentibo urriagoa dute aldameneko hizkun-
tzekin konparatuta, eta beharrik ere ez dute egitura hori hedatzeko.

Bibliografia

- Alexiadou, A., 2001, *Functional Structure in Nominals. Nominalization and Ergati-
vity*, Amsterdam, John Benjamins.
- , 2010a, Nominalizations: A Probe into the Architecture of Grammar. Part I: The
Nominalization Puzzle, *Language and Linguistic Compass* 4.7, 496-511.
- , 2010b, Nominalizations: A Probe into the Architecture of Grammar. Part II: The
Aspectual Properties of Nominalizations, and the Lexicon vs. Syntax Debate,
Language and Linguistic Compass 4.7, 512-523.
- , 2011, The aspectual properties of nominalization structures, in A. Galani,
G. Hicks, and G. Tsoulas (arg.) *Morphology and its Interfaces*, Amsterdam, John
Benjamins, 195-220.
- , 2017, Ergativity in Nominalization, in J. Coon, D. Massam, L. D. Travis (arg.),
The Oxford Handbook of Ergativity, Oxford, Oxford University Press, 355-372.
- , E. Anagnostopoulou, & F. Schäfer, 2009, PP-licensing in nominalizations, *Pro-
ceedings of NELS* 38, 38-52.

- , —, & —, 2015, *External arguments in transitivity alternations. A layering approach*, Oxford, Oxford University Press.
- & J. Grimshaw, 2008, Verbs, nouns and affixation, in F. Schäfer (ed.), *Working Papers of the SFB 732 Incremental Specification in Context* 01, 1-16.
- , G. Iordachioaia, M. Cano, F. Martin, & F. Schäfer, 2013, The realization of external arguments in nominalizations, *Journal of Comparative Germanic Linguistics* 16, 73-95.
- , — & E. Soare, 2010, Number/aspect interactions in the syntax of nominalizations: A Distributed Morphology approach, *Journal of Linguistics* 46, 537-574.
- , — & F. Schäfer, 2011, Syntactic realization of plural in Romance and Germanic nominalizations, in K. Arregi *et al.* (eds.), *Romance linguistics 2008: Interactions in Romance*, Amsterdam & Philadelphia, John Benjamins, 107-124.
- , L. Haegeman, & M. Stavrou (2007) *Noun Phrase in the Generative Perspective*, Berlin, Mouton de Gruyter.
- Artiagoitia, X., 2000, *Hatsarreak eta Parametroak lantzen*, Vitoria-Gasteiz, Arabako Foru Aldundia-UPV/EHU.
- , 2006, *Euskarazko izen sintagma: arkitektura eta egitura funtzionala*, UPV/EHUko eskuizkribua.
- , 2009, Jabetza-genitiboaren sintaxia eta erkatze anizkuna, *ASJU* 43, 51-72.
- , 2011, Osagarria hautatzen duten izenak, *Sareko Euskal Gramatika*, Euskararen Institutua, UPV/EHU. <http://www.ehu.es/seg/morf/5/6/3>
- , 2012, Genitive case in Basque and multiple checking, in U. Etcheberria, R. Etxepare eta M. Uribe-Etxebarria (arg.) *Noun Phrases and Nominalization in Basque*, Amsterdam, John Benjamins, 209-242.
- Azkarate, M., 2008, Gertaera- eta emaitza-izenak, in X. Artiagoitia eta J. A. Lakarra (arg.), *Gramatika Jaietan Patxi Goenagaren omenez*, Bilbo, ASJUren gehigarriak-UPV/EHU, 93-106.
- Berro, A., B. Oihartzabal, eta B. Fernández, 2018, Inkoatibo/arazle alternantzia euskaraz eratoritzen, *Fontes Linguae Vasconum* 126, 365-388.
- , & B. Fernández, 2019, Applicatives without verbs, *Natural Language and Linguistic Theory* 37, 1273-1317.
- Borer, H., 2003, Exo-skeletal vs. endo-skeletal explanations: syntactic projections and the lexicon, in J. Moore and M. Polinsky (arg.) *The nature of explanation in linguistic theory*, Stanford, CSLI Publications, 31-67.
- Bruening, M., 2013, By-phrases in passives and nominals, *Syntax* 16, 1-41.
- Duguine, M., 2012, Basque nominalizations and the role of structural Case in the licensing of null arguments, in U. Etcheberria, R. Etxepare eta M. Uribe-Etxebarria (arg.) *Noun Phrases and Nominalization in Basque*, Amsterdam, John Benjamins, 333-374.
- Elordieta, A., 2001, *Verb Movement and Constituent Permutation in Basque*, Universiteit Leiden doktorego tesia.
- Etxepare, R., 2006, Number Long Distance Agreement in (Substandard) Basque, *ASJU* 40, 303-350.
- Euskaltzaindia, 1987, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I. Eranskina*, Bilbo, Euskaltzaindia.
- Fábregas, A., 2013, Multiple genitives and the distinctness condition: the case of the Spanish DP, *Lingue e linguaggio* 12.2, 249-278.

- Goenaga, P., 1984, *Euskal sintaxia: konplementazioa eta nominalizazioa*, UPV/EHU doktorego tesia.
- Grimshaw, J., 1990, *Argument Structure*, Cambridge MA, MIT Press.
- Grimm, S. & L. McNally 2014, No ordered arguments needed for nouns, in M. Aloni, M. Franke, and F. Roelofsen (eds.) *Proceedings of the 19th Amsterdam Colloquium*, 123-130.
- Gondra, A., 2014, Different types of nouns, different types of projections, *Iberia: International Journal of Theoretical Linguistics* 6, 1-26.
- Halle, M. & A. Marantz, 1993, Distributed morphology and pieces of inflection, in K. Hale & S. J. Keyser (arg.) *The view from building 20: Essays in linguistics in honor of Sylvain Bromberger*, Cambridge, MIT Press, 111-176.
- Harley, H., 1995, *Subjects, Events and Licensing*, MIT doktorego tesia.
- Höhn, G., 2012, The Licensing of Adnominal PPs: the case of Basque *-ko*, in B. Surányi and D. Varga (arg.), *Proceedings of the First Central European Conference in Linguistics for postgraduate Students*, Budapest, Pázmány Péter University, 118-143.
- Marantz, A., 1997, No Escape from Syntax: Don't Try Morphological Analysis in the Privacy of Your Own Lexicon, *University of Pennsylvania Working Papers in Linguistics* 4.2, 200-225.
- Miguel, Elena de, 1996, An aspectual restriction on Spanish nominal infinitives, *ASJU* 29.1, 245-266.
- Násh, L., 1995, *Portée argumentale et marquage casuel dans les langues SOV et dans les langues ergatives: l'exemple du géorgien*, Université de Paris VIII doktorego tesia.
- Odrizola, J. C. & I. Zabala, 1996, On the relation between TP and DP. The structure of Basque infinitivals, *Catalan Working Papers in Linguistics* 5.2, 231-281.
- Ormazabal, J. & J. Romero, 2017, Historical Changes in Basque Dative Alternations: Evidence for a P-based (neo)derivational analysis, *Glossa: a journal of general linguistics* 2(1): 78, 1-39.
- Ortiz de Urbina, J., 1989, *Parameters in the Grammar of Basque*, Dordrecht, Foris.
- Picallo, C., 1991, Nominals and nominalizations in Catalan, *Probus* 3.3, 279-316.
- de Rijk, R. P. G., 1998, Basque Hospitality and the suffix *-ko*, in J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *Generative studies in Basque Linguistics*, Amsterdam, John Benjamins, 145-162.
- San Martín, I., 2012, Structural dependency and interpretation in Basque nominalized clauses, in U. Etxeberria, R. Etxepare eta M. Uribe-Etxebarria (arg.) *Noun Phrases and Nominalization in Basque*, Amsterdam, John Benjamins, 375-395.
- Sichel, X., 2009, New evidence for the structural realization of the implicit external argument in nominalizations, *Linguistic Inquiry* 40.4, 712-721.
- Sleeman, P & A. M. Brito, 2010, Nominalization, event, aspect and argument structure, in M. Duguine, S. Huidobro & N. Madariaga (arg.) *Argument Structure and Syntactic Relations*, Amsterdam, John Benjamins, 113-129.
- Smirnova, A. & R. Jackendoff, 2017, Case assignment in nominals, *Language* 93.4, 877-911.
- Urrestarazu, J., 2017, *-Keta atzizkiaren azterketa morfologikoa*, Master Amaierako Lana, UPV/EHU.
- Vendler, Z, 1967, *Linguistics in Philosophy*, Ithaca, Cornell University Press.

Wit, de P, 1997, *Genitive Case and Genitive Constructions*, University of Utrecht doktorego tesia.

Zuazo, K., 2000, *Euskararen Sendabelarrak*, Donostia, Alberdania.

Corpusa

Ereduzko Prosa Dinamikoa: <https://www.ehu.eus/ehg/epd/>